

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Urduñako Udala****Gizarte Ongizateko maileguen Tasa ezartzeko hasierako onarpena**

Urduñako Udalaren Udalbatzak, 2019ko abenduaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

- F. Zerbitzugintza Publiko eta Jarduera Administratiboengatikoko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza
 - XXIII. epigrafea.—Gizarte-ongizateko maileguengatikoko tasa

Ordenantza honen ezarpena testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean, eta berariazko aldaketa edo indargabetzea onartu arte egongo da indarrean.

Behin-behinean onartzeko erabakia jendaurrean jarriko da erakusgai, interesdunentzat ikusgai eta entzungai geratu dadin. Horretarako epea hogeita hamar lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunetik hasita. Horrela, espedienteaz aztertu eta behar besteko erreklamazioak zein iradokizunak aurkeztu ahal izango dira.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onartzeko erabaki hori behin betiko onartzen dela ulertuko da, eta Udalbatzak ez du horretarako erabakirik hartu beharko.

Urduñan, 2020ko urtarrilaren 9an.—Alkatea, Itziar Biguri Ugarte